

**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA
SAU ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN
KONTSORTZIOARI ITZULPEN
ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA
ARAUTZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN
AGIRIA**

1- XEDEA

1.1 Lehiaketa honen helburua G.H.K., S.A.U.-ri eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari, idatzizko dokumentuen itzulpen zerbitzuak eskainiko dizkion enpresa aukeratzea da, itzulpenak, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen artekoak izango direlarik.

1.2 Itzulpen zerbitzuak dokumentazio tekniko, ekonomiko eta juridikoari buruzkoak izan daitezke. Testuaz gain, dokumentuek taulak eta grafikoak izan ditzakete.

2- ZEHAZPENAK

2.1 Eskatutako zerbitzuak:

Ondorengoak izango dira itzuli beharrekoak: dokumentu ofizialak, jakinarazpenak, ziurtagiriak, hilerio izaten diren GHK, S.A.U.ko Administrazio Kontseiluko eta Kontratazio Mahaiko aktak eta ezohikoak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko batzarretako aktak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialerako eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialerako argitalpenak, ...Itzulpenak gaztelaniatik euskararakoak izango dira batik bat, baina Europar Batasuneko hizkuntzatara itzultzea ere eskatu ahal izango da. Aipatutako dokumentuez gain, beste mota bateko dokumentuen itzulpena ere eskatu dezake kontratatzaileak.

2.2 Eskatutako hizkuntzak:

Oro har, kontratu honen xedea diren itzulpen zerbitzuen hizkuntzak ondoren aipatzen diren guztiak edo batzuk izan daitezke:

- Gaztelania
- Euskara
- Katalana
- Ingelesa
- Frantsesa
- Alemana

2.3 Itzulpen kopurua:

Itzulpen kopurua Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren beharraren arabera izango da, eta, hori dela eta, ezin da aurretik zehaztu eskatuko diren dokumentu eta hitz kopuruen zenbateko zehatza.

3- ITZULTZAILEEN BALDINTZA TEKNIKOAK

3.1 Beharrezko langile kopurua bermatzea

Esleipendunak bermatu beharko du beharrezkoa den langile kopurua duela itzulpen zerbitzuak Ezaugarri Teknikoen Agirian zehazten diren baldintza eta epeetan eskaintzeko.

Aurkezten duen eskaintzan adierazi beharko du, baldintza normaletan egunean itzuli dezakeen testu bolumena, baita urgentzia kasuetan eguneko itzuli dezakeena ere.

3.2 Lan prestakuntza eta prestakuntza teknikoa

Zenbait kasutan, itzuli beharreko testuek konplexutasun tekniko handia izango dute, espezializazio maila handia dutelako, ondoren aipatzen diren esparruetan batez ere:

- Kontabilitatea eta ekonomia
- Finantzak
- Zuzenbideko gaiak

Hori dela eta, jatorriko testuek izaera espezifikoa duten terminologia teknikoa izango dute aipatu diren esparruetan, eta ezin izango dira literalki itzuli.

Egoera horren ondorioz, beharrezkoa da esleipendunak:

Mota honetako testuak itzultzeko gaitasuna izan eta beharrezko jakintza teknikoak dituzten giza baliabideak prest izan eta esleitzea (itzultzaile, aztertzaile eta zuzentzaileak).

Baldintza horiek bete eta bermatu ahal izateko honakoak izatea: lan metodologia eta kalitatea bermatzeko kontrol prozedura.

4- ZERBITZU ESKAERAK

Salbuespenak salbu, jatorrizko dokumentazioaren eta itzulpenen igorpena formatu digitalean egingo da posta elektronikoko bidez enpresa esleipenduna eta GHK, SAUren artean.

Itzulpen lan bakoitzak erreferentzia zenbaki bat eta entrega orri bat izango ditu, eta GHK-k itzulpenaren epemuga eta beste datu batzuk adierazi beharko ditu bertan.

5- ZERBITZUAREN KALITATEA

Itzulpenak mantendu egin beharko ditu jatorrizko dokumentuaren ezaugarri formalak.

Jatorrizko dokumentuaren **formatua** ere errespetatu eta mantendu egin beharko da (letra-tipoa, letra-tipoaren tamaina, letra lodia, letra etzana, taulak, koadroak, ...).

G.H.K., S.A.U.-k esleipendunari kalitate baldintza minimoak betetzen ez dituzten itzulpenak zuzentzea eskatu diezaioke inolako kostu osagarririk gabe.

6- ITZULPENAK ENTREGATZEKO EPEA

Ezin izan da zenbatetsi itzuli beharreko testuen guztizko bolumena, eta beharraren arabera itzulpenak bi motako zerbitzuetan ezberdindu ditzakegu entregatzeko epeen arabera.

Eskaintzarako epe maximoak tarte bakoitzean ondorengoak dira:

| TARTEA | | EPE MAXIMOA |
|----------|----------------------|---------------------------|
| 1 TARTEA | 500 hitz arte | 4 lanordu |
| 2 TARTEA | 1.000 hitz arte | 16 lanordu |
| 3 TARTEA | 5.000 hitz arte | 24 lanordu |
| 4 TARTEA | 10.000 hitz arte | 40 lanordu |
| 5 TARTEA | 20.000 hitz arte | 56 lanordu |
| 6 TARTEA | 20.000 hitzetik gora | 60 lanordu 25.000 hitzeko |



Zehaztutako epeak **MAXIMOAK** dira, eta lizitatzailleek ezingo dituzte gainditu inongo tarteetan. Edozein tarteetan maximoak gainditzten dituzten eskaintzak baztertuak izango dira.

Astelehenetik ostiralera 8 ordukoak izango dira lanordua, Euskal Autonomia Erkidegoko jai ofizialak direnean salbu.

GHK-ko eskaerak jaso ondoren, esleipendunak gauzatze epeak baieztatuko ditu, eskaintzaren edukian agertzen diren epeekin bat etorriko direnak.

Klausula honetan agertzen den luzera gainditzten duen dokumenturen bat itzuli behar denean edo GHK-ren aldetik itzultzeko urgentzia berezia duten kasuetan, entrega epeak kontratista eta G.H.K., S.A.U.-ren artean hitzartuko dira, luzapenaren eta konplexutasunaren arabera.

Klausula honetan aipatzen diren epeak esleipendunak itzulpen zerbitzuaren eskaera jasotzen duenetik kontaktzen hasita itzulpenak GHK, SAUren eskuetan dauden unera bitartekoak izango dira.

7- **MEMORIAREN EDUKIA**

Memorian lizitatzailleak ondorengoak azaldu beharko ditu:

A) Enpresak eta bere itzultzaileek dituzten baliabide tekniko eta giza-baliabideen deskribapena egin beharko du honakoei dagokienez:

- Enpresak bere esku dituen ekipamendu informatikoa (hardwarea eta softwarea) eta komunikazio ekipamendua.
- Formatu ezberdinetako dokumentuak itzultzeko gaitasuna (testu tratamendua, kalkulu-orriak, HTML, XML, PDF, ...)
- **Itzulpen memoria** aplikazio informatikoak erabiltzeko gaitasuna. Enpresa eta itzultzaileentzat zehaztu beharko da.

B) Eskainitako Batez Besteko Epea: argi adierazi ondoren aipatzen diren epe bakoitzeko eskainitako itzulpen epea, agiri honen 6. klausulan aipatutako baldintza minimoak hobetuz, EPE MAXIMOA zutabearen agertzen den neurri unitate bera erabiliz:

| TARTEA | EPE MAXIMOA | ESKAINITAKO EPEA |
|----------------------|---------------------------|------------------|
| 500 hitz arte | 4 lanordu | |
| 1.000 hitz arte | 16 lanordu | |
| 5.000 hitz arte | 24 lanordu | |
| 10.000 hitz arte | 40 lanordu | |
| 20.000 hitz arte | 56 lanordu | |
| 20.000 hitzetik gora | 60 lanordu 25.000 hitzeko | |

C) Eskaintza ekonomikoa aurkeztu beharko da BABP-aren IV. ERANSKINEAN jasotako ereduaren adierazitakoaren arabera.